

Ingurumen-politika

Gure ustez, ingurumenaren babesa **Zuzendaritzaren konpromiso** garrantzitsua da, eta, beraz, Eskolako jardueraren guztietan ezartzen ditugu helburu eta jokabide-jarraibide zehatzak. Ingurumena babesteko bada, guztiok arduratsuak izan behar dugu.

Eskolaren ustez, **ingurumena babesteko urrezko hiru arauak (murriztu, berrerabili eta birziklatu)** arduraz aplikatzea da gure ingurumen-politikaren ardatza.

Ingurumen-kudeaketako sistemaren **arduradunaren** bidez bermatzen dugu lege-eskakizunak betetzen direla, eta Eskola guztian ingurumena are gehiago babestea da gure asmoa, Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren kudeaketa integratuaz baliatuta.

Ingurumen-babesaren egoera **aldizka aztertzen dugu**, ahulguneak atzeman eta behar diren neurriak hartu ez ezik, egindako aurrerapenak ere dokumentatzeko.

Etengabeko hobekuntzarekin eta kutsaduraren prebentzioarekin dugun konpromisoaren barruan sartzen da produktuen, energiaren eta uraren erabilera ahalik eta neurrizkoena izatea.

Langileak eta ikasleak **informatzen eta sentsibilizatzen** ditugu gure jarduerarekin eta haien funtzioekin lotutako ingurumen-alderdiei buruz, eta animatzen ditugu haien portaerak ingurumenarekiko sentsibilizazioa isla dezan.



Osakidetza



UPV EHU

